

Teoren liburuek baino luzeago hitz egin du Jakobak. Hainbeste Jakoba daude izan ere, Jakoba eskolan, Jakoba landareen munduan, Jakoba paisajista, Jakoba Nekazarien Kooperatiban, Jakoba sagardoaren historian, Jakoba Zerainen, Jakoba baserrian... Jakobaz Jakoba ibili gara, erreka ondoan gora, eta iritsi gara ustez iturbururaino.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Dani Blanco

Jakoba Errekondo

«Euskaldunak urbanoak izan gara beti»

Gezurra badirudi ere kalekumea da Jakoba.

Bai, baina bi gurasoak baserritarrak ditugu, biak zubietarrak. Ez usurbildarrak eta ez donostiarrak, Zubieta herrikoak. Ni bai, kaletarra naiz, baina baserria beti bertan sentitu dut. Gure aitak lana beti zerra batean egin izan du, eta zerra horren ondoan daude bere baserria eta amarena. Aita bizikletan joaten zen lanera, eta koadroan horrelako eserleku txiki bat zeukan gu eskulekua-ri helduta hantxe joateko. Bera bizikletan lanera, eta gu baserrira. Oso zalea nintzen ni. Hamasei urte nituenean Santo Tomas lizeoko lagunek “larunbatean elkartuko gara Donostian?”, galde-tzen zuten, eta nik, “segun, eguraldi ona egiten baldin badu ez, nik baserrira lanera joan behar baitut, eta eguraldi txarra egiten baldin badu bai, ez dago eta lanik egiterik”. Haiek harrituta, hori ezin zuten ulertu, eta halakoxe gauza sinpleak dira gero beste asko esplikatzen dituztenak. Zure bizitzako eginbehar guztiek inoiz ez baldin badiote zure inguruneari ezer zor, gaizki goaz.

Lehen eskola eguna nola oroitzen duzu?

Ez zait sekula ahaztuko etxera etorri eta beheko

Nortasun agiria

Jakoba Errekondo 1961eko irailaren 3an jaio zen Usurbilen. Usurbilgo eskolan ikasi zuen, gazteleraz, eta gero Donostiako Santo Tomas Lizeoan. Peritu agronomo lizentziatu zen Lleidan eta Iruñean. Paisajistaren titulua ere badu. Soldaduskatik bueltan Gureak-en hasi zen lanean lorezaintzako saila edo departamendua sortzeko misioarekin. Bederatzi urte geroago Zerainera joan zen lanera, herri txiki baten etorkizuna lantzeraz. Usurbilgo Nekazarien Kooperatibako lehendakaria da, eta Sagardo Egunaren sortzaileetakoa. Hogeita bi urte daramatza Euskadi Irratian landareen kontsultarekin, eta ARGIA zenbaki honetan idatzi du bere bostehungarren zutabea.

balkoian zegoen izebari nola esan nion “izeba, izeba, gaur hasi naizela eskolara!”. Gu sei urte arte ez ginen eskolan hasten, gainera anaia eta lehengusuak zaharragoak ziren, ni baino urtebe-te lehenago hasi ziren, eta nik uste dut horrek piztu zidala ikasteko gogoa. Eta ikasteko grina hura oraindik ere sentitzen dut. Orain ere bul-tzatu beharko litzateke hori, azken batean, gero egin behar dituzun gauza guztiak zuk bilatuta egin behar dituzu. Gogoz kontra joateko hortxe dago soldaduska.

Adin ezberdinak nahasten zineten zuek klase berean. Hori zer da, trabagarri edo onuragarri?

Nik hori defendatu egiten dut. Zerainean hiru urtetatik abiatu eta zortzi urtera bitartekoan eskola daukagu, eta bi gelatan daude adin horiek denetakoak. Nik uste kopuru handiagoetan ere sustatu egin behar litzatekeela klasean adin ezberdinetakoak nahastea. Agian ez ordu guz-tietan, baina gauza batzuk egiteko bai. Bestela ghettoetako jendea sortzen ari gara. Benetako herri bizitza belaunaldi loturak edukitzea da. Eta lotura ez da koadrila. Herria puzzle bat bada, zuk zure piezaren lekua bilatu behar duzu. Hel-duekin harremanak eduki behar dituzu, umea-goekin ere bai, aiton zaharrekin...

Zure gairik kuttunena landareak dira. Askotan irakasle on batek sortzen digu gai baten plazera. Botanikan nor izan zen zure irakaslea?

Aitarekin ikasi nuen nik. Landareen mundua oso da zabala, eta nire kuttunenak arbolak dira. Gure aitak egurrarekin lan egiten zuen eta zerrara etor-tzen ziren enborrei begira liluratuta egoten nin-tzen. Aste bukaeratan ehizean ibiltzen zen aita, hura aurretik eskopetarekin eta ni atzetik, bidean arbolak seinalatzen zizkidan: “Hau lizarra da, hau astigarra...”. Eta gero ni horri buruz liburutari bila hasten nintzen. Eta igoal berrehun astigar liburuan! Orduan ate hartatik mundu bat zabal-

● Jakoba Errekondo

tzen zitzaidan, eta ni aitari erakusten hasten nintzen. "Aita, honen izena *Acer Pseudoplatanus* da, eta horrek esan nahi du, *pseudorekin* faltsua dela, eta *platanus*, ba beste platanoa". Bion arteko hartu eman bat sortzen zen, zirkulu bat, aldian-aldian handiagoa. Hemezortzi urterekin unibertsitatera joan nintzenerako asko nekien. Eta han nekien horri beste jantzi bat eman nion. Peritu agronomo asko ateratzen dira unibertsitatetik inoiz baratze batean aza bat ikusi gabe. Nik alde-rantzizko bidea egin nuen.

Landareek ba al dute inteligentziarik?

Pentsa zein inteligenteak diren, milioika eta milioika urte daramatzate munduan, eta guk haiekin alderatuta bi segundo baino ez. Gu hilko gara eta landareek hemen segituko dute. Hitzaldiak ematerakoan beti galdera bat egiten diot jendeari: "Sekula pentsatzen jarri al zarete zer alde dagoen landare baten eta animalia baten artean?". Animaliak mugitu egiten gara eta landareak ez. Landarea da, hemen erori zaizu hazia eta hemen tokatzen zaizu bizitzea. Beti hemen egongo zara, bizitza osoan, toki ona bada, ondo, eta toki txarra bada ere, ondo. Hotza, beroa, gosea, egarria, dena dela ere beti hemen. Animaliak, beroa baldin badu, bilatu egiten du itzala. Eta orduan pentsa zenbat sistema eta zenbat teknika ikasita dauzkaten landareek irauteko. Hor dagoen jakinduria eta pilatutako esperientzia sekulakoa da. Gu hain gara inteligenteak horretaz jabetzeko adina ere ez garela.

Baina tontook gure mendean hartuak ditugu landare inteligenteak...


Gizakiaren jokabidea betikoa da: "Nik soro bat daukat, artoa egin nahi dut, eta artoa egingo dut. Lurra azidoa dela? Botako diot produktu bat eta basiko bihurtuko dut. Hotz egiten duela? Negutegiak jarriko ditut". Iruditzen zaigu teknikarekin eta diruarekin edozein gauza lor dezakegula. Eta gure eskasakia hortxe dago. Artoak esango luke, "ez, ez, nik hor ezin dut".

Baina ez du hitz egiten.

Hitz egiten du bai, baina beste era batera. Entzuten jakin behar.

Zuk badakizunez entzuten, landareek zer esaten dute guri buruz?

Landareek guri buruz ez dute ezer esango bai baitakite gutaz hitz egitea denbora alferrik galtzea dela. Nik beti esaten dut landareak guri barrez ari direla. Barrez ari dira ikusten dutelako zer egiten dugun. Nik landare bat etxean lorontzi batean baldin badut, eta kanpoan nagoela pentsatzen badut landare hori itsusia dela eta zakarretara botako dudala, badira ikerketak frogatzen dutenak landareari automatikoki alarma pizten zaiola, nik pentsatze hutsarekin. Hori elektrikoki



Errebote jokoa

"Usurbilgo plaza errebote plaza da, eta gero egindako dema plaza. Ba frontoiari estalki nazkagarri bat egin zioten zeinak errebote jokoa galarazi egiten duen. Non dago horko arkitektoa? Non dago hori egiten utzi duen politikoa? Niri ikaragarritzko mina eman zidan. Euskaldunok munduaren aurrean azaltzeko modukoa den zerbait baldin badaukagu, hori errebotea da. Errebote jokoa da gaur egun dauden kiroltan kirolariaren inteligentzia garatzeko aukera ematen duen bakarretakoa. Errebotea kirola ez den kirol bat da, desberdintasunean oinarritua".

neurtuta dago. Gu berriz gai gara bi urtean beste bizidun baten ondoan egon eta hari buruz ideiarik ez edukitzeko.

Barre ez ezik negar ere egingo dute orduan.

Negarra seguru egingo dutela. Baina barre gehiago. Beraiek badakite azkenean hiltzera doazela, guk jakin beharko genukeen bezala. Eta aldea hor dago, gu kristauak garela, eta

negar egin behar dugula. Barre egitea hobe genuke, barre egitea da bizitzea.

Landareetan ere badira bertakoak eta etorkinak?
Hori esatea atrebentzia handia da.

Nik entzun izan dut jendea pinuagatik beltzarenak esanez...

Hori ezjakintasun ikaragarria da! Pinuari buruz nola hitz egiten den, palmerari buruz nola, horrek azkenean hizketan ari denaren subkontzientea azaltzen du. Palmeraz zergatik hitz egiten dugu gaizki? Espainolak direlako. Eta gu espainolak garela, ez karnetagatik, jokabidez baikik, inor ez da ohartzen? Ba palmerak gu baino askoz ere lehenagotik daude hemen, eta badira hemengoak diren palmerak. Pinuak ere gu baino askoz lehenagotik daude hemen. Nik beti esaten dut euskaldunok gure urrezko aroa Magdalenesian izan genuela, orain dela hamazazpi mila urte. Ekaingo kobazuloan zaldiak pintatu genituen, Altamiran bisontek, eta Lascaux-n behiak. Gaur egun ez dago horrelako arterik. Eta hemen egin diren garai hartako estudio polinikoetan, ia beti pinuak azaltzen dira. Irizpide horien arabera, pagoa, adibidez, ez da hemengoa. Zer egin behar dugu? Denak ipurditik moztu eta bota? Edo gaztaina ez da hemengoa, erromatarrek ekarri zuten, intxaurrendoa ez da hemengoa, gerezia ere ez, ez artoa ere. Gure euskalduntasunaren oinarriak, taloaren artoa, babarrunak, piperrak, patatak... ez da gurea. Zuk esaiozu orain baserritar bati gaztaina, bere arbaso guztiak mantendu dituen negu oro, ez dela hemengoa, ba ez da. Orduan zer da hemengoa?

Hemengoa, azken batean, garaian garaiko paisaia da. Zu paisajista ere bazarenez, Magdalenesiatik hona zenbat aldatu da gure paisaia, eta gure paisaiarekiko harremana?

Hasieran gizakia naturaren parte da, natura gurtu egiten du, zaldiak dira bere katedraleko irudiak. Soluzio guztiak hortxe dauzka, beraz naturari errespetu bat zor dio. Gero gizakia hasten da natura txikitzen, "nik nekazaritza egingo dut hemen, ardiak jartzeko basoa bota eta belardia egingo dut" esaten du. Orduan natura dominatzaera pasatzen da. Eta zer gertatzen da? Bere benetako galderari, "Nik zer egiten dut hemen?" beste erantzun bat eman behar diola, eta erlijioak sortzen dira. Dagoen eta gezurrik handiena, sortu jaungoiko bat kanpotarra, eta harekin lotu dena. Natura ustiagai bihurtzen da eta paisaiaren bilakaera ekonomiaren menpe gelditzen da. XVI. mendean Euskal Herria munduko gune inportanteenetarikoa zen, Gipuzkoa, gaur egungo Manhattan zen. Mundu guztiko komertzioa, kontrabandoa, salerosketak, barkuen eraikuntza guztiak, dena hemen zentralizatuta zegoen. Eta horren zerbitzuko, basoak txikituta. Orain berriz, halako konplexu puntu batekin bizi gara.

Usurbil erdalduna

"Usurbilgo kalea erabat erdalduna zen orduan. Eta denak euskaldunak izango ginen e! Baina euskaldunak ginenak ere erabat erdaldunak ginen. Erdaraz ondo egitea gradu bat zen, gizarte mailako neurri bat. Guk barre egiten genion erdaraz gaizki egiten zuenari. Eta hori oraindik ere badago Usurbilen, konplexu asko dago, eta kalean erdara dezente entzuten da. Betiko kontradikzioak ateratzen dira azken batean; Batasunak gehiengo osoa duen herri bat da, baina erabat espainola dena izatez. Baita Batasunaren boto emaile horiek ere. Gara irakurtzen dute, *Diario Vasco* irakurtzen dute, *Marca* irakurtzen dute, *Berria* ez da saltzen Usurbilen. Jende abertzalea eta ezkertiarra dena, eta bere burua herrigintzako lehen lerroan ikusten duena, baina izatez erabat espainolak direnak. Oraindik ez dira jabetu gure herriaren etorkizunerako gakoa bakoitzaren kultura dela".

Jada erlijioa ez da jaungoikoa, jaungoikoa ni naiz, nire burua eta nire patrika. Eta naturak berdin jarraitzen du, nire patrikarako esplotatzen dut, baina jada ez natura bakarrik, baita gizakia ere. Esklabotzara goaz bueltan. Eta aldi berean naturarekiko kezka sortzen da, halako triangelu batean bizi gara: naturaren aldekoak, naturaren kontrakoak, eta oreka.

Sagardoa izan omen da gure paisaiaren diseinatzailer handiena.

Gure paisaia bereziki berak marraztua da. Estrago erromatarra hogeita piko urte Kristo aurretik etorri zen hona, eta hark "euskaldunek edaten dute *vinus malis*" esan zuen. *Vinus* ardoa da latinez, eta *malis* sagarra. Alegia, sagarraren ardoa edaten genuela. Hurrengo erreferentzia interesgarria Gipuzkoa lehen aldiz aipatzen den dokumentuan dago. XI. mendekoa da, eta Altzo beheko monasterio batek egiten duen herentzia bat da. Herentzian etxe batzuk eta haien lursailak sartzen dira, eta lursailen deskripzioetan gehiena sagastia agertzen da. Garai hartan guk hegazkin baterik begiratu izan bageñu Gipuzkoa laurden bat edo sagastia izango zen. Horrek esan nahi du denek sagardoa edaten zutela. Jakin behar da inork ez zuela urik edaten. Ura gaitzak transmititzeko era zen, pentsa, gaur egun oraindik ere badaude baserritarrak urik sekula edaten ez dutenak. Eta ez da alkohola gustatzen zaielako, ez, ez, baizik eta ura txarra delako osasunarentzat. Urak hil egiten du, ardoa urruti zegoen, garesti, eta beraiek sagarra eskuera zeukaten eta menperatu egiten zuten teknika hori, beraz beraientzako urte guztiko sagardoa egin eta barrikatan sartuta edukitzea oinarritzakoa zen bizi iraupenerako. Gero, XVI. mendean Espainia munduko inperioa zen. Gaur egungo Bush. Mundu guztian zituen jabetzak, eta horren oinarria itsasoa eta ontziak ziren. Espainiak bere produkzio nagusiak esportatu egin behar zituen, artilea eta garia. Bestetik, Euskal Herrian munduko burdin produkzio handiena eta onena zegoen, oso teknika ona erabiltzen baitzen. Horrez gain, Ameriketatik lapurtzen zuten guztia ere ekarri beharra zegoen, urrea eta zilarra batez ere. Eta bukatzeko euskaldunak ziren mundu guztian urrutiena joaten zirenak arrantzara. Ontzigintza hori ikaragarria zen, gizarte oso bat zegoen horri begira, gizarte urbano bat. Hori ez dugu inoiz ahaztu behar, euskalduna beti izan da urbanoa. Baserritarrarena mito bat da. XVI. mendean, gizarte horren eskariari erantzuteko, borda, txabola, harkaitz azpi, eta horrelakoetan bizitzetik hiru solairuko baserri zaharrak eraikitzaera igarotzen da euskalduna. Eta baserri zahar hori ez da bera bizitzeko, sagardoa egiteko baizik. Mesopotamiatik datorren teknikarekin bi plantako dolarea egiten da, eta ia mila horrelako eraikitzen dira. Gaur egun Gipuzkoak ehun eta hoge sagardotegi ditu, ba orduan mila baziren.



Arrantzaleek ere sagardoa eramaten omen zuten urrutietara joatean.

Arrantzunziak hamar, hamasei hilabetetarako joaten ziren Ternura. Denek sagardoa hartzen zuten. Euskaldunok ikaragarritzko fama izan dugu beti itsasoan, eta hori sagardoari zor zaio. Sagardoak bitaminak eta mineralak mantendu egiten ditu, bizirik dagoen edari bat da. Aldiz beste marinelek ardoa edaten zuten, edo ura, eta ardoa edaten zutenean hor nonbait, baina ardoaren ordeaz kofia edaten hasi zirenean akabo. Hamar litro ardo distilatuta kofia litro bat egiten da, baina hori jada ez da bizirik dagoen edaria, distilatu egin da, erre, eta beraz marinela horiek eskorbutua harrapatzen zuten. Eskorbutua da marinelen artean munduan egon den gaitzik famatuena, C bitaminaren falta. Aldiz, sagardoak C bitamina mantentzen du, eta beraz ingelesek harriturik begiratzen zieten euskaldunei: "Nola da posible? Balearen arrantzara joaten dira Ternura, hamasei hilabete bizitzeko moduko baldintzarik ez dagoen toki batean pasa, etorri, gu baleen gantza hori lapurtzera pirateora joan, eta guri aurre egiteko gai dira. Nola da posible indar hori?". Dena zen sagardoari esker. Baina Espainiako inperioaren beharakarekin bat gizarte hori hondarrezko gaztelua bezala erortzen da, akabo ontziolak, ez dago lehengo merkataritza, eta orduan hasten gara euskaldunak baserritartzen.

Eta egungo baserri gutxiak ez dira hondarrezko gazteluak bezala eroriko?

Benetako kalitateko produktuak egin behar ditugu, baina ez gara mugatu behar produktu hori sortzera, produktu hori jan behar duenaren eskuetaraino eraman behar dugu. Eraldaketa, merkaturatzea, salmenta... kate hori dena gure esku badago, baserria benetan errentagarria

Sagardoaren desgrazia

"Sagardotegiak merkatuari begira ari dira lanean, eta beti berdina izango den edari bat sortzen dute, kolore gutxikoa, alkohol gutxikoa, garratza ez dena, gustu gutxi duena. Nire ustez hanka sartze galanta da. Sagardoaren grazia osoa berari fermentatzen uzten zaiola da. Ondorioz, aurten sagardo gorria aterako da, hurrengoan ez, aurten lodia, hurrengoan ez. Baina guk, grazia horri eutsi beharrean, nahiago dugu beti berdina izango den erdipurdiko zerbaiten bila joan. Gure kulturako gauzarik inportanteenetako bat galtzera goaz. Ardoaren munduan ezberdintzea baloratzen da. Gaurko azken puntakoa 'vino de autor' delakoa da. Ba hori sagardoarekin etxe oro daukagu".

izango da. Eta oso inportantea da produktuei gona altxatuz gero baserritarra ikustea, eta ez sozietate anonimo bat. Horrek egiten ditu produktuak humano. Nik kalitate hori baloratzen baldin badut badakit hau egiten ari den baserri-tarrak ere bizitza kalitate hobea izango duela, gero eta produktu hobea egingo duela, ni gero eta hobeto biziko naizela, eta, bera ere bai.

Supermerkatuaren ideia zertan dago?

Idea Euskal Herriko produktuak bakarrik salduko dituen supermerkatua sortzea da. Oraingoz asmo hutsean dago, baina kooperatiba gaur egun bada horren lehenengo kimua, produktu ekologiko sail handi bat saltzen baitugu, denak Usurbilgo baserrietan egiten diren produktuak; sagardoa, babarrunak, intxaurrak...

Baina nik atzo Indiako tipula jan nuen, Mexikoko tomate, eta Frantziako azalorea. Badakizu globalizazioa...

Euskaldunok jabetu behar dugu gu garela mundu honetan globalizatzaileenak. Begira non dauden kooperatibak, Mexikon, Txinan, Brasil... Euskaldunok beti izan gara multinazional bat, lehen ere bai, orain dela bostehun urte balearen bila joaten ginen, gero espainolekin urrea lapurtzera, gero frantsesekin pirateora Afrikara, berdin zitzaigun. Eta gaur egun berdina egiten dugu. Baina globalizazio horrek kalte batzuk ekarri dizkigu, batez ere lehen sektorean. Eta hori buelta emateko aukera bakarra dago, kalitatea eta hurbiltasuna. Baserriaren etorkizuna gaur egun hortik bakarrik dago, hortik eta elkartasunetik, elkartasuna da errentagarritasuna. Nik beti esaten dut, baserritik bizitzeko aukera gaur? Bai, inoiz baino gehiago. Pasatzen den urte bakoitzeko aukera gehiago sortzen dira, gero eta jende gehiago dabil nazkatuta produkzio arrun-

tekin, oilaskoari ez dakit zer pasatzen zaio, txerriari ez dakit zer, behiak erotu egiten zaizkigu...

Elkartasuna aipatu duzu. Baina nekazariak konpontzen al dira elkarren artean? *Wazemanken* Aregitarrek eta Agirretarrak ikusita, ez dirudi fama hori dutenik.

Horrelako programa batean hori ateratzea iraingarria da. Hori espainolek egiten zuten lehen euskaldunokin, eta orain geuk egiten dugu geure buruari buruz, lotsagarria da.

Zerainen behintzat ez dirudi horrelakorik badenik, zuk jada hamabi urte daramatzazu. Zer du Zerainek hain berezi?

Bere etorkizuna zalantzan jarri duen herri bat dela. Eta prest daude auzolanean egin behar dena egiteko. Zer behar dugu? Eskolak behar ditugu, jolas tokiak, Internet, zergatik ez dugu hori auzolanean egiten? Euro bakarra baldin badaukazu euro horrek normal gastatuta baten balioa izango du, baina auzolanean gastatuz gero euro horrekin hamabost euroren lanak egingo dituzu.

Gazteak dira herri txikietatik alde egiten dutenak. Nola lotu gazteak Zeraina?

Gaztea jabetu behar da herrian kanpoan baino aukera hobeak dauzkala. Zer nahi du gazteak?

Gaztetxe bat? Goazen Zerainen gaztetxe onena jartzera, Donostian baino hobe. Hain da erraza! Gazteak festetara joan nahi du? Goazen herriko gazteak festetara eraman eta ekarri egingo dituen garraioa jartzera. Orduan gazteak konturatuko dira Zerainen bizitzea luxua dela. Guraso bat prest dagoena goizeko hiruetan jaiki eta herriko gazte guztiak ez dakit nongo festetik ekartzeko, non ikusten da hori? Zerainen bai. Eta orain gazteek Zerainen nahi dute etxea.

Herri handiagoetara eta hirietara zabaldu liteke metodologia hori?

Dudarik gabe, horixe da Agenda 21. Metodologia egina dago, arazoa da gure politikoei ez dutela aplikatu nahi, eta Agenda 21 ingurumenari lotutako gaiak bakarrik lantzeko baztertu dute. Barkatu, baina Agenda 21 ingurumena oinarri hartuta gure etorkizun osoa planteatzea da; dinamika soziala, ekonomikoa, etorkinak, haurrak... Hori ez dute ikusi nahi, hemen politiko, alkate edo zinegotzi izatea boterea edukitzea da. Eta boterearen zentzu mediterraneo horrek izorratzen gaitu. Politika ezjakinaren eta diruzalearen plaza bihurtu da. Pixka bat inteligenteak direnak ez daude hor, ikerketan, enpresetan, kulturean, eta beste toki batzuetan daude. ■

jaso astero Argia etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Gune kide ere izango zara

Urtebeteko harpidetza
2006ko prezioak
127€ Hego Euskal Herrian
155€ Iparr Euskal Herrian

harpidetza eskaera

Izen deiturak: _____
Helbidea: _____ Posta kodea: _____ Herria: _____
Herrialdea: _____ Jaioteguna: _____
N.A./I.F.K.: _____ Tel./Faxa: _____ e-posta: _____

Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647

Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: _____
Titularra: _____ N.A./I.F.K.: _____
Titularraren helbidea: _____ Titularraren telefonoa: _____
Entitatearen Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____
Data: _____ Sinadura: _____

aukeratu zure ongi etorri oparia

☐ "Gari ot" komikia

☐ "Lauburua" mahai-jolasa

☐ "Txoriak txori" lamina

☐ %25eko beherapena
ikasle bazara*

ARGIA Bete zure datuak eta bidali helbide honetara: 142 PK. - 20.160 Lasarte-Oria